

AKUTUEN UNITATEA PAZIENTEARENTZAKO INFORMAZIOA

AURKEZPENA

Galdakao-Usansoloko Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuaren Akutuen Unitatean ospitaleratuta zaudenerako informazio baliagarria aurkituko duzu gida honetan.

Gurekin harremana daukazun bitartean, harreman hori ona eta emankorra izatea nahiko genuke. Gure gogoia da zuri eta zure senideei laguntzea, hainbat lasterren eta ondoen sendatu zaitezten.

Horretarako, kalitaterik goreneko arreta emango dizugu, testuinguru terapeutiko egokia ezarriz, elkarrenganako errespetuan, guztion betebeharrak eta eskubideak zaintzeko ahaleginez, eta konfidentzialtasuna bermatuz.

Horrela bada, onena opatuz, jaso ezazu gure agurrik beroena, zerbitzu honetako profesionalen izenean, baita gure erakundearen eta Osakidetzarenean ere.

GALDAKAO-USANSOLOKO OSPITALEKO PSIKIATRIA ZERBITZUA: OSASUN-EREMU PUBLIKOA

Galdakao-Usansoloko Ospitaleko bigarren solairuan dagoen Psikiatria Zerbitzua Osakidetzako Barrualde-Galdakako Erakunde Sanitario Integratuaren baitakoa da.

Zerbitzu honetako Akutuen Unitatea pazienteek, senideek eta profesionalok elkarren artean partekatzen dugun gunea da. Bertan, laguntza psikiatriko espezializatua eskaintzen zaie pazienteei, krisi edo desoreka psikikoa daukatenean; pazienteentzat ospitaleko segurtasun giroan.

Ospitaleratzea momentu puntuala izan ohi da laguntza-prozesuan. Horrelakoetan, familiako medikuak, beste espezialista batzuek eta osasun mentaleko zentroek (OMZ) esku hartzen dute, eta osasun-sareko dispositiboek koordinatuta jardun behar izaten dute, bai elkarren artean, baita beste erakunde batzuekin ere.

LAGUNTZA-TALDEA

Zerbitzuan talde-lanean dihardugu: mediku psikiatrak, psikologo klinikoak, mediku egoiliarak, erizainak, gizarte laneko diplomatuak, terapeuta okupazionalak, zeladoreak eta Administrazio langileak.

Arreta eskaintzen dizun profesionalaren izena eta kategoria, momentu oro, ezagutuko dituzu. Lanbide bakoitzak bere uniformeak dauka, eta hartatik jakin dezakezu zein arlotan diharduen bakoitzak.



Mediku psikiatrak berak emango dizu, aurrez aurre, zure prozesuaren eboluzioaren berri; bai zeuri baita zure gertuko senideei ere, konfidentzialtasuna zainduz. Medikuen bisita egunero izaten da, astelehenetik ostiralera bitartean, goizez. Zalantzarik badaukazu galdetu lasai.

Prozesu terapeutikoan parte hartzen duten beste profesionalak ere berorren alderdi desberdinei buruzko informazioa eman ahal izango dizute: psikologo klinikoak, gizarte langileak, terapeuta okupazionalak, ...

Erizaintzako langileek 24 orduko arreta eskaintzen dizute. Erizain bat eta erizain laguntzaile bat arduratzen dira zu zaintzeaz lan-txanda bakoitzean.

Horiez gain, erizaintzako gainbegiralea ere bada, eta komenigarri baderitsozu beragana jo dezakezu.

AKUTUEN UNITATEA: PROZESUA

1. Ospitaleratzea

Larrialdietan mediku psikiatrak artatu zaitu, eta, zure egoera ebaluatuta, Psikiatria Zerbitzuan ospitaleratzea proposatu du.

Psikiatريان, bi ospitaleratze-mota daude: borondatezkoa (pazienteak hala onartuta), eta borondatez kontrakoa, larritasunagatik izan daitekeena. Azken kasu horretan, epaileak elkarrizketatuko zaitu, eta, azken beltzean, berak baimenduko du borondatez kontrako ospitaleratzea. Fakultatiboek azalduko dizuete zuri eta zure senideei zein ospitaleratze-mota den.

Behin ospitaleratuta, lehenengo momentuan erizainekin egongo zara, eta zure informazio eta zainketa beharrei erantzungo diete. Txandaka, zure beharrei erantzuteko prest dauden erizaintzako langileak esleituko dizkizute.

Solairuan zaudenean, ospitaleratuta zauden bitartean artatuko zaituen mediku psikiatra esleituko zaizu.

2. Ospitaleratuta zauden bitartean

JARDUERAK

Garrantzitsua da eskaintzen dizkizuten jardueretara joatea, orobat bakarka, taldeka eta senideekin elkarrizketatzeko batzar-deietan parte hartzea.

ELIKADURA

Ohiko otorduen ordutegia hauxe da:

Gosaria:	9:20 - 10:00 h
Bazkaria:	13:30 - 14:00 h
Askaria:	16:15 - 17:00 h
Afaria:	20:30 - 21:00 h
Gaueko osagarria:	23:00 h

Ospitaleratuta zauden bitartean, nutrizio beharrak asebeteta daudenez gero, senideek janaria edo bestelako elikagaiak ekartzea ez dago baimenduta (gozokiak, txikleak...).

Ezin dira onartu, pazientearen segurtasunerako.

Pazienteak **elikagaiaren bati alergia badio**, erizainari jakinarazi behar diozu.

TABAKOA, ALKOHOLA ETA DROGAK

Osasun-zentroa izanik, **Akutuen Unitatea tabakorik gabeko gunea da, hortaz, erretzea debekatuta dago.**

Debekatuta dago, halaber, **drogak kontsumitzea** eta izatea Unitate horretan. Halakorik izatekotan, kendu egingo zaizkio, eta beharrezko neurriak hartuko dira drogak emateko eta kudeatzeko, legezko protokoloari jarraikiz.

Alkoholodun edaririk ezin da edan, eragina baitauka funtzionamendu psikikoan, tratamendu farmakologikoan eta desintoxicazio prozesuan.

ARROPA ETA NORBERAREN GAUZAK

Unitatean, kaleko/etxeko arropa jantzita izango duzu; horregatik bada, arropa eroso eta garbitasunerako tresnak beharko dituzu, eta, jakina, ohi denez darabiltzazun gauzak: betaurrekoak, protesiak, dutxarako txankletak... Arren, ekar ezazu egun batzuk igarotzeko beharrezkoa dena soilik.

Segurtasuna dela eta, zuk zeuk mina ez hartzeko edo beste pertsonak ere har dezaten saihesteko, **debekatuta dago:**

- Gerrikoak eta lokaridun arropak edo oinetakoak izatea
- Interneterako konexioa daukaten gailu elektronikoak, hala nola mugikorak, tabletak, erloju adimendunak...
- Arriskutsuak izan daitezkeen honako beste hauek ere izatea:
 - Gauza zorrotzak eta ziztatzaileak
 - Botilak, latak (edarienak edo janarienak), kristala
 - Ilerako lixagailua, tableta elektronikoak, hortzetako eskuila elektrikoak, lehorgailuak...
 - Pizgailuak, tabakoa, ...

ONDASUNAK ZAINTzea

Ospitaleratutako pertsonen segurtasuna bermatuta egon dadin, ez ditu eskura izango ondasun guztiak. Ospitaleratzean, ekarritako ondasunak ikuskatzen dira, eta, baliteke, komenigarri iritziz gero, beste momenturen batean ere ikuskatzea ondasunak edo gela.

Ondasunetako batzuk kendu egingo zaizkizue eta Unitateko toki seguruan gordeko dira, kontsignan, hain justu, eta langileren batek zainduko ditu beti. Senideek zerbait ekarri nahi duten guztietan, erizainei eman beharko diete, egoki den tokian koka dezaten. Ez ekarri baliozko objekturik.

BISITAK

Medikuek agindutakoaren arabera izango dira, pazientea nola dagoen eta haren beharra zenbaterainokoa den ikusita. Debekatu ere egin ditzake, tratamendu aldiari, ez dela komenigarria iritziz gero.

Unitatean lasaitasun-, ordena- eta segurtasun-giroa egon behar denez, pertsona bakarra onar daiteke,– posible bada beti pertsona-bera.

Hauxe da **bisita-ordutegia**:

- Astelehenetik ostiralera: 17:00etatik 19:00etara
- Larunbatetan eta jaiegunetan: 16:30etik 20:00etara

Gainerako pazienteen lasaitasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko, **bisitak pazientearen gelan egingo dira, eta ezin da Unitatetik ibili.**

Bisitariak maskara jantzita eduki beharko du, eta eskuak garbituko ditu unitatean sartzean eta irtetean

SENIDEEN ETA PROFESIONAL SANITARIOEN ARTEKO BILERAK

Bisita-tartea une egokia izan daiteke senideak Erizaintzako profesionalekin egoteko eta izan ditzaketen zalantzak argitzeko.

Ospitaletik kanpo Erizaintzakoekin harremanetan jartzeko, ospitaleko telefonogunera deitu daiteke, **94 400 70 00** telefono-zenbakira, eta luzapen hauekin jartzeko eskatu:

- Erizaintza: 2224
- Idazkaritza: 7020

Konfidentzialtasuna dela eta, Erizaintzako profesionalek **ez daukate baimenik telefono bidez informazio klinikoa emateko.**

Medikuarekin hitzordua eskatzeko, senideek zerbitzuko Idazkaritzara dei dezakete, **94 400 70 20**, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara bitartean. Hitzordua eska daiteke, ospitaleratu den lehenengo eguneko 12:00etatik aurrera.

Horiek dira Unitateak eman ditzakeen telefono zenbakiak; izan ere, geletan ez dago telefonorik.

Horregatik bada, zera erregutzen dizuegu: bisita-aldira arte itxaron ezin daitekeen kasuetara mugatzea pazienteei egin beharreko deiak.

MUGIKORRAK

Paziente ospitaleratuen konfidentzialtasuna bermatzeko, Unitatean ezin daiteke mugikorrik erabili, ez pazienteek, ezta senideek ere. Gainera, senideek **mugikorrek isilean** eduki behar dituzte.

Ospitaleratutako zure senideak telefono mugikorra erabili ahal izango du, espazio eta ordutegi mugatuetan.

3. Ospitaleko alta agiria

Zure mediku psikiatrak erabakiko du zenbat denbora egon behar duzun ospitaleratuta eta noiz hartuko duzun alta. Garaiz jakinaraziko dizu, egin beharreko izapideak egin ditzazun.

Ospitaleratzea borondatez kontrakoa denean, kasuaren ardurak daukan psikiatrak hala agintzen duenean emango da alta.

Alta ematean, txostena emango dizute; bertan zehaztuko dira tratamenduaren jarraibideak eta zein zainketa egin behar duzun.

Laguntza behar duen beste pazienteren bat zain egon daitekeenez, baliteke ohea eguerdiko 12:00etarako libre uzteko eskatzea, datorrenarentzat garbitu eta prest izateko.

4. Garraioa

Segidan, ospitalera etortzeko garraio-bide nagusiei buruzko informazioa daukazu:

BIZKAIBUS	<ul style="list-style-type: none">- Udalerriak ospitalearekin lotzen dituen autobus-linea.- Informazio zabalagoa: www.bizkaia.net- Telefonoa: 902 22 22 65.
EUSKO TRENBIDEAK	<ul style="list-style-type: none">- Mikrobus-lantzadera dago, ospitalea eta Usansoloko tren-geltokia batzen dituena.- Informazio zabalagoa: www.euskotren.net- Telefonoa: 902 54 32 10.
TAXIAK	<ul style="list-style-type: none">- Kanpo kontsultetarako sarreran, taxi geltokia dago.- Telefonoa: 94 456 58 27.

Asistentziaren kalitatea hobetzeko, eskertuko genuke gure zerbitzuei buruzko zure iritziak, iradokizunak, kexak eta esker onak helaraztea.

Hala nahi izanez gero, jakinaraz dezakezu bai Psikiatria Zerbitzuan bertan, bai Pazienteen eta Erabiltzaileen Arreta Zerbitzuan (PEAZ), ospitaleko atari nagusian, 8:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera.

Horrez gain, Osakidetzako pazienteen eta erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren agiria dago. Agiri hori Ospitaleratze Unitatean eska dezakezu edo Osakidetzako webgunean kontsultatu.

ZALANTZARIK BADAUKAZU, GALDE EZAZU LASAI.

Unitatean, funtzionamendu egokirako, giro lasaia, ordenatua eta segurua behar da.

Hori lortzeko zure laguntza behar dugu.

Elkarrenganako errespetuan, hobeto egiten dugu lan.